



BERARIAZKO NEURRIAK (SARBIDE-EGOKITZAPENAK) LEHEN HEZKUNTZAN IKASKUNTZAREN NAHASMENDUAREN ONDORIOZ HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO BERARIAZKO PREMIAK DITUZTEN IKASLEENDAKO

67/2022 Foru Dekretuak, 15. artikularen 2. puntuan, honako hau dio, banako premiei erantzuteari dagokionez: “ikasteko zailtasunak detektatu eta berehala neurri inklusiboak hartuko dira, antolaketakoak, curriculumekoak eta metodologikoak, hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleek etapako helburuak eta kompetentziak lortu ahal izateko”.

69/2023 Foru Aginduak hezkuntza-inklusioa arautzen du, eta haren III. kapituluan, hezkuntza-ekitaterako eta -inklusioko neurriak eta jarduketak ezartzen ditu. Neurri orokorrak, zehatzak eta ezohikoak aipatzen ditu. Zehazki, 11. artikuluan, neurri zehatzen barruan, 3.a apartatuan, hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleen sarbidea errazteko egokitzapenak ezartzen ditu. Artikulu horretan bertan honako hau aipatzen da: “Nafarroako Hezkuntza Ekitaterako Baliabide Zentroaren proposamenak ere baliatzen ahalko dira, erantzun hori doitzen laguntzeko”.

Haur Hezkuntzan ari diren ikasleen ebaluazioa arautzen duen 59/2023 Foru Aginduaren 22. artikulua, Lehen Hezkuntzako arautzen duen 52/2023 Foru Aginduaren 9. artikulua, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako arautzen duen 53/2023 Foru Aginduaren 9. artikulua, hurrenez hurren, banakako desberdintasunei erantzuteari buruz mintzo dira, eta, zehazki, 2.b apartatuan, sartzeko curriculum-egokitzapenak barne dituen hezkuntza-laguntza edo -errefortzua (HE-SCE) aipatzen da. Honela dio:

“Ohikoak ez bestelako baliabide materialak eta sarbide-baliabideak behar dituzten ikasleei zuzendutako neurria da sartzeko curriculum-egokitzapenak barne hartzen dituen hezkuntza-laguntza edo -errefortzua. Arreta berezia jarri beharko da neurri hori aplikatzen zaienean entzumen, ikusmen edo motrizitate arazo larrien edo bestelako edozein desgaitasunen ondorioz hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei. Ebaluaziorako erreferenteak ikaslea matrikulatuta dagoen arlorako eta mailarako ezarritako gaitasun espezifikoak eta ebaluazio-irizpideak izanen dira. “HE-SCE” neurria hasierako ebaluazioan jasoko da, eta, dagokion balorazioarekin batera, aplikatu den hiruhileko ebaluazioetan ere, baina ez amaierako ebaluazioan, azken horretan balorazioa bakarrik jasoko baita”.

Dokumentu honetan, antolaketa-, metodologia- eta ebaluazio-alderdiei buruzko neurri batzuk ematen dira. Horiek hautatzeko, kontuan hartu dira irakurtzeko zailtasuna dakarren ikaskuntzaren nahasmendua duten ikasleen hezkuntza-premiak.



Ikaslearen izen-deiturak:

Taldea:

Irakasgaia:

Ikasturtea:

1. IKASGELAN LAN EGITEKO

1.1. ANTOLAKETA-NEURRIAK

Ikasleak jartzea distrakzio-elementuetatik (ateak, leihoak, etab.) urrun, batez ere arreata-zailtasunak badituzte.	
Ikasleak kokatzea erraz zaintzen ahal diren lekuetan, edo zaintza hori errazten duten taldeetan antolatzea (taldekatzeko malguak, taldeen banaketak...).	
Berdinkideen arteko laguntzaz baliatzea, irakurmen eta jarrera onak dituzten ikasleak aintzat hartuta.	
DRIVEN partekatutako agenda batekin lan egitea. Irakasle-taldeak etxerako lanak erregistratuko ditu, eta, horrela, eguneko zereginen kopurua eta entrega-epeak arautzen ahalko ditu. Era berean, beharrezkotzat jotzen bada, agenda hori familiarekin ere partekatzen ahal da, ikasleek informazioa jasotzen dutela eta zereginak egiten dituztela gainbegiratu ahal izateko.	
Egutegi partekatu batean jasota izatea ebaluazio-proben eta proiektu edo lanen entregatzeko-datak, eta data horien artean behar beste tarte uzten ahalegintzea.	
Irakasleek ikasleen lana gainbegiratzea etengabe, familiarekin lankidetzan (agenda, zereginak eta lanak entregatzea, ikasketak, materiala, atsedenaldirak...).	
Oharrak igortzea, aurretiazko abisu gisa, lanak entregatzeko epea amaitzeko dagoenean.	

1.2. NEURRI METODOLOGIKOAK

Ikusizko euskarria erabiltzea, ahozko azalpenekin batera, ideiak errazago ulertzeko eta lotzeko: eskemak eta grafikoak, ohar sinplifikatuak, mapa mentalak eta kontzeptualak, taulak, bideoak... Baliabide horiek gaiaren ideiak islatzen dituzte modu globalean, gai berri bat hasi aurretik, bitartean eta amaitzean.	
Informazioa antolatzeko moduak eraikitzen irakastea, ikasi behar diren edukietarako egokiak direnak, ikaskuntza, erabilera estrategikoa eta ikasitakoaren oroimena errazteko asmoz: eskemak, taulak, denbora-lerroak, Venn-en diagramak, kontzeptu-mapak, sare semantikoak, mapa mentalak, arau mnemoteknikoen erabilera...	
Sekuentzien ikaskuntza erraztea (biderketa-aulak, asteko egunak, hilabeteak, preposizioak, ingeleseko aditz irregularren zerrenda, taula periodikoa, etab.), buruz ikaste hutsa saihestuz eta ulermena eta aplikazioa lehenetsiko dituzten estrategia metodologikoak eta jarduerak sustatuz.	



Landu beharreko gai berri bat aurkeztean, azaltzea zer ikasi behar den eta zein diren horretarako eduki garrantzitsuenak.	
Zalantzak modu pribatuan planteatzeko aukera ematea.	
Askotariko material osagarria erabiltzea, haiek ikastea nahi den informazioa aurkezteko: bideoak, argazkiak, grabazioak, baliabide informatikoak, Power Pointeko aurkezpenak...	
Material argiak, erakargarriak eta ongi diseinatuak sortu eta erabiltzea.	
Idatziz aurkeztutako informazioaz batera, horrekin lotutako grafikoak eta irudiak txertatzea.	
Ikasi beharreko testuetan garrantzitsua dena azpimarratzea. Koloreak, markatzaileak... erabiltzea (Read and Write)	
Gai bakoitzaren hasieran eta gai eta arlo guztietan termino berrien glosarioa prestatzea. (Read and Write).	
Testua ahots eta ahotsa testu bihurtzen dituzten gailuak erabiltzea. (Read and Write)	
Grabagailuak erabiltzeko aukera ematea (irakasleen ahozko azalpenak grabatzea) edo funtsezko edukien audioak ematea, ondoren ikasi ahal izateko.	
Apunteak/laburpenak aurreratzea, ikasteko testu segurua izan dezan, apunteak hartzea edo arbeletik kopiatzea saihestuta.	
Nahitaez irakurri beharreko liburuei dagokienez, bertsio digitala (ahots bihurtzeko) dutenak eskaintzea, baita audioliburuak edo irakurketa-liburuak ere.	
Kapituluen laburpenak eskaintzea, horiek irakurri aurretik.	
Irakurritakoa ulertzeko testuak egokitzea (Read and Write). • Testuen luzera murriztea (garrantzitsua ez den informazioa ezabatuz) edo informazio garrantzitsua nabarmentzea. • Testua zati txikitan banatzea eta galderak tartekatzea (ez jartzea denak akaberan). Garrantzitsua da galderarekin lotutako testua beti agerian izatea. • Testuaren paragrafoei zenbakiak jartzea, erantzuna errazago aurkitzeko.	
Idatzizko adierazpeneko ekoizpenak egokitzea: • Gidalerroak ikasleen beharretara egokitzea. • Testuak idaztean, erraztasunak ematea, sortu behar duten testu motaren egitura islatzen duten txantiloak erabiliz. • Egindako testuen adibideak ematea, beraiena egitean eredutzat har ditzaten. • Testu idatziak sortzeko, ordenagailua erabiltzen uztea, zuzentzaile ortografikoekin. • Arau ortografiko zehatzak bistara izatea.	



Informazioa antolatzeko moduak eraikitzen irakastea, ikasi behar diren edukietarako egokiak direnak: eskemak, taulak, denbora-lerroak, Venn-en diagramak, kontzeptu-mapak, sare semantikoak...	
Ikasgelan egin beharreko jarduerak lehenestea, behar duten gauzatze-denborara egokituz (jarduera nagusiak zehaztea, baita denbora soberan badago egingen dituen ariketak ere; beharrezkoak ez diren jarduera errepikakorrek saihestea). Denbora luzeagoa ematea ikasgelako jarduerak egiteko.	
Aurreko egokitzapena egin ondoren, denbora luzeagoa eman behar da behar izanez gero, betiere atsedenaldiak edo gozatzeko uneak murrizten ez badira.	
Ikasleekin aurrez ikustea eta prestatzea taldean/ikasgelan egin beharreko irakurketa-, idazketa- edo matematika-jarduerak (ozen irakurtzea, arbelean eragiketa edo problema bat idaztea edo ebatzea), arrakastatsuak izan daitezten.	

1.3 NEURRIAK EBALUAZIOAN

Orokorrak:

Azterketen egutegia ezartzea, gutxienez astebete lehenago, behar bezala antolatu ahal izateko.	
Eguneko azterketen kopurua mugatzea. Egun berean bi azterketa egotea saihestea (batez ere globalak edo eduki-karga handikoak badira).	
Ebaluatze prozesu osagarriak eta askotarikoak erabiltzea: • Lanak bere ikaskuntza-prozesuaren berri izateko tresnatzat hartzea. • Eguneroko lanak eta entregak hitzartutako epeetan egin diren baloratzea. • Garrantzia ematea ahaleginari. • Helburuen lorpena baloratzea, proiektuak, lanak, eskemak, kontzeptu-mapak laburpenak eta abar eginez. • Landutako kontzeptuei buruzko galdeketa laburrak egitea, sarritan.	
Lanak ongi aurkezteko ereduak buruzko informazioa aurreratzea: jarraitu beharreko eskema, letra-mota, formatua...	
Errubrika bat aurreratzea proiektua ebaluatze irizpideei, lanari, nahitaez irakurri beharreko liburuari eta abarri buruz.	
Jarduerak ahalik eta lasterren zuzentzea. Zuzenketa zenbat eta gehiago atzeratu, orduan eta txikiagoa da zereginarekiko lotura; bizkorrago eginez gero, aldiz, handiagoa da zereginarekiko motibazioa, eta eraginkorragoa da, ikaskuntzari mesede eginez.	
Haren lanaren alderdi positiboak indartzea eta itxaropen positiboak transmititzea.	



Akats asko daudenean, ez itzultzea zuzenketez betetako lanak, eta beti ahoz ematea espero zenaren edo erantzun zuzenen berri.

Azterketak eginez gero:

Azterketa egin aurretik:

Azterketan agertuko den edukiari buruzko baliabideak ematea, hala nola ikasteko gidoiak, laburpenak eta kontzeptu-mapak.	
Helburu eta eduki garrantzitsuetan arreta jartzen duten probak prestatzea, zentzuzko luzera dutenak.	
Azterketa prestatzean, ikaskuntza-prozesuan egindako ariketen edo galderen antzeko proposamenak gehitzea.	
Azterketan baliatuko den formatuarekin aldeztu aurreko ariketak egitea ikaslea formatu horretara ohitzeko, eta erantzunaren adibide bat ematea, ikaslea gai izan dadin erantzun-estiloa eta -egitura imitatzeke.	
Edukia zatikatzea, eta horren arabera ebaluazio-probak egitea sarritan, adibidez, sekuentziak ikasteko, hala nola biderketa-taulak, asteko egunak, hilabeteak, preposizioak, ingeleseko aditz irregularren zerrenda, taula periodikoa, etab., kalifikaziora begira batez ere ulermen sakona eta haren aplikazioa lehenetsita.	

Azterketa-formatuak:

Idatziz edota ahoz ebaluatzeko jarduerak diseinatzea (Read and Write luzapena duten audio-grabazioak, galderekin lotutako audio-oharren, bideo-deien eta bideo-grabazioen bidez).	
Azterketak ahozkoak badira, eskema bat eman behar zaio, azaldu behar dituen edukien ordena eta izenburuak adierazteko.	
Askotariko erantzunak dituzten azterketak diseinatzea: laburrak, luzeak, aukera anitzeko test motakoak, hutsuneak betetzekoak, ideiak lotzekoak, esaldiak osatzekoak eta zuzena-okerra motakoak, besteak beste.	
Garatzekoak diren galderen kasuan, ikasitako guztia adierazten ahal duela ziurtatzeko, adieraztea zer alderdi agertu beharko liratekeen, zer eskemari jarraitu beharko liokeen eta abar.	
Azterketako galderak beti idatziz ematea, ez ahoz.	
Galdera argiak, laburrak eta ulerterrazak egitea. Azalpen idatziak sinplifikatzea.	
Idatziz aurkeztutako galderarekin batera, jarduerarekin lotutako grafikoak eta irudiak txertatzea.	



Galdera bateko baino gehiagoko enuntziatu konplexuak saihestea.	
Galderak banan-banan aurkeztea.	
Azterketaren hasieran jartzea ikasleek errendimendu hobea lortzeko galderak.	
Azterketaren denbora egokitzen saiatzea (eduki bera baloratzeko ariketa ugari ez egitea, galdera kopurua murriztea, galdera batzuk lehenestea eta besteak aukerakotzat hartzea, denbora izanez gero egiteko, etab.); eta, beharrezkoa izanez gero, denbora gehigarria ematea.	
Mota edo gai berari buruzko galderak multzokatzea.	
Nahikoa leku uztea azterketako galderen artean.	
Informazioa modu argian eskatzea: • Ereduzko erantzunak gehitzea. • Taulak osatzea. • Denbora-lerroak osatzea. • Eskemak, kontzeptu-mapak... osatzea. • Eskemen txantilo bat ematea, kategorizazioko galderei erantzuteko. • Erantzunen gidoi bat sartzea, garatzekoak diren galderei erantzuteko.	
Serifarik gabeko letra-tipo argia erabiltzea, (Arial, Calibri, Verdana, Comic Sans).	
Letra-tamaina handitzea (14-16)	
Karaktereen arteko tartea handitzea.	
1,5 puntuko lerroartea erabiltzea.	
Ortografia ebaluatzeko probetan, une horretan lantzen ari den arau ortografikoa ebaluatu behar da, eta aplikazioa erraztuko duten laguntzak eman behar zaizkie: - azentuazio-arauak: silaba tonikoa markatzea araua aplikatzeko. - hitzek arau ortografikorik ez dutenean edo salbuespenak direnean: b-v, g-j, y-ll, h duten hitzak,... ikasi beharreko hitz-zerrenda mugatu bat ematea aurretik.	

Azterketan zehar:

Irakasleak azterketa eta galderak ozen irakurtzea.	
Ikasleek galderak ulertzen dituztela ziurtatzea eta haien zalantzak argitzea.	
Enuntziatuen eta galderen gako-hitzak nabarmentzea. Hitz nagusiak nabarmentzea letra lodiz, gorriz....	
Ahots-irakurgailua erabiltzea galderen enuntziatuetarako. (Read and Write)	
Informazioa alferrik kopiazea ekiditea (adibidez, galderak kopiazea).	
Soilik erakustea erantzun beharreko galdera, gainerako galderak estaliz.	



Azterketa beste leku batean egiteko aukera ematea.	
Denbora kontrolatzen laguntzea.	
Azterketa ikaslearekin batera berrikustea entregatu aurretik, galdera guztiei erantzun diela egiaztatzeko.	

Azterketa egin ondoren:

Edukia baloratzea, eta ez hainbeste forma (ez zigortzea ortografiagatik –salbu eta ortografia ebaluatzen ari bada–, antolaketagatik, aurkezpenagatik...).	
Idatzizko erantzunak ahozko azalpen batekin osatzeko aukera ematea.	
Azkar zuzentzea eta egindakoa hobetzeko aukera ematea.	

2. IRAKASGAIREN BATEKO BERARIAZKO NEURRIAK (orain arte aipatutakoei gehituta)

ATZERRIKO HIZKUNTZA

EGOKITZAPEN METODOLOGIKOAK ETA JARDUERAK

Gai bakoitzak hiztegia eta gramatika ikasteko ezartzen dituen gutxieneko helburuak adieraztea.	
Hiztegia aberasteko hiztegi pertsonalizatuak prestatzea, irudiekin batera.	
Batez ere idatzizko hizkuntzaren arloan zailtasunak daudenean, ahozko komunikazioaren estandarrak lehenestea idatzitakoen gainetik.	
Estrategia konpentsatzaileak erabiltzea, entzumen-euskarri handiagoa (audioak, Read and Write aplikazioaren ahots-bihurgailua) eta ikusizko euskarri handiagoa (irudi eta bideoen laguntza) dituztenak, informazioa errazago eskuratzeko.	
Ikaskuntza funtzionala lehenestea. Ikasleendako ikaskuntza-egoera esanguratsuak proposatzea, hiztegi, morfologia, aditz (aditz-denbora desberdinak eta aditz irregularrak) eta egitura sintaktiko berriak ikasteko.	
Gramatika-formak (aditz-denborak, egitura sintaktikoak, galderak...) ikasteko estrategiak, arauak, erregelak... ematea. Adibidez: aditz irregularrak taldekatzea errepikatzen den ereduaren arabera eta erregela bat ematea: ee bikoitza e + t bihurtzen da (feel: felt-felt; keep: kept-kept; sleep: slept-slept,...); i-a-u eredu dutenak (drink: drank-drunk; sing: sang-sung; begin: began-began,...), etab.	
Atzerriko hizkuntzak ikasteko programetan, hezkuntza-laguntza (baliabide pertsonalak, didaktikoak...) gaztelaniaz, euskaraz edo atzerriko hizkuntzan jasotzea baloratzen ahalko da (43/2023 FD).	



EGOKITZAPENAK EBALUAZIOAN

Bere koaderno edo eguneroko zeregina ikasleak eskuratzen dituen ezagutzak ebaluatzen tresnatzat hartzea.	
Ahozko ebaluazioa lehenestea. Azterketak ahoz egiteko aukera ematea.	
Ereduzko probak eskaintzea, azterketetan erantzuteko modua praktikatzeko.	
Kontrolak ariketa eta esaldi errazekin egokitzea hiztegi eta gramatika mailan.	
Askotariko erantzunak dituzten azterketak diseinatzea: laburrak, luzeak, aukera anitzeko test motakoak, hutsuneak betetzekoak, hitzak irudiekin lotzekoak...	
Idatziz aurkeztutako galderarekin batera, jarduerarekin lotutako grafikoak eta irudiak txertatzea.	
Azterketan baliatuko den formatuarekin alde aurreko ariketak egitea ikaslea formatu horretara ohitzeko, eta erantzunaren adibide bat ematea, ikaslea gai izan dadin erantzun-estiloa eta -egitura imitatzen (adib.: Pasatu esaldia iraganera, "past simple" erabiliz: <i>I leave home at 8:30. I left home at 8:30</i>).	
Ortografia-akatsak kontuan ez hartzea, eta hitzen transkripzio fonetiko onartzea (adibidez: <i>orange</i> -> <i>orench</i>), horien ahozko integrazioa lehenetsita.	
Ikusizko euskarriak erabiltzea idatzizko nahiz ahozko ebaluaziorako.	
Aditz irregularren taula erabiltzen uztea, ebaluazio-edukia ez denean.	
Landutako kontzeptuei buruzko galdeketa laburrak egitea, sarritan.	
Atzerriko hizkuntzak ikasteko programetan, arlo bakoitzean ziklo bakoitzerako oinarritzako jakintza gisa ezarritako ebaluazio-irizpideak eta edukiak hartuko dira erreferentziatzat, ebaluazioa eta kalifikazioa egiteko (43/2023 FD).	

MATEMATIKA

EGOKITZAPEN METODOLOGIKOAK

Ikaskuntza funtzionala lehenestea. Ikasleendako ikaskuntza-egoera esanguratsuak proposatzea, eduki berriak ikasteko (algoritmoak, neurriak...)	
Manipulatzeko materiala erabiltzea, irudikapenarekin eta lengoia matematikoko adierazpenarekin batera.	
Problema ebazteko metodo bati jarraitzea: galdera egitea, testua ulertzea, datu garrantzitsuak identifikatzea, enuntziatua eszenifikatzea edo marraztea edo eskematizatzea, urratsak planifikatzea, algoritmoak egitea, emaitza aztertzea, emaitzari zentzua ematea.	



Problemetako testuak egokitzea: • Testuen luzera murriztea (garrantzitsua ez den informazioa ezabatuz) edo informazio garrantzitsua nabarmentzea. • Problemetako testuak irudiekin, grafikoekin, eskemekin eta abarrekin laguntzea. • Ebatzi beharreko galdera aurkeztea problemaren hasieran, izenburu gisa. • Galderak lerro desberdinetan aurkeztea.	
Problemak ebazteko koadroak ematea, informazioa ongi antolatzeak aukera ematen dutenak.	

EGOKITZAPENAK EBALUAZIOAN

Landutako matematika-kontzeptuen ulermen sakona, elkarrizketa matematikoa, arrazoibide matematikoaren garapena eta problemak ebazteko trebetasuna ziurtatzea (alde batera utzita algoritmoen ebazpena eta arreta jarrita ulermenean, irudikapenean, sailkapenean, plangintzan eta emaitzaren koherentzia).	
Ebaluazio-probak egitea sarritan, eduki gutxi dutenak, ikaskuntzan zehar.	
Formulak, biderketa-taulak eta kalkulagailua erabiltzeko aukera ematea, eduki horren ezagutza ebaluatzen ari denean izan ezik.	
Prozesuari emaitzari baino garrantzi handiagoa ematea beti (kalkuluko akats batzuk izaten ahal dituela kontuan hartuta)	

3. ETXEAN LAN EGITEKO KONTUAN HARTU BEHARREKO NEURRIAK

Irakasleak:

Irakasleekin doitzeta eta koordinatzea etxerako lanen zailtasun-maila, eremu komun batean erregistratuta.	
Etxerako bidalitako lanean adieraztea zein diren jardura nagusiak, eta zein diren denbora soberan badu soilik egiteko jarduerak.	
Zeregin laburrak proposatzea, hainbat jardura-mota txandakatu eta, horrela, nekea saihestu ahal izateko.	
Atazak eta lanak beste formatu batzuen bidez aurkezteko aukera ematea, hauen bidez, besteak beste: grabazioak, power pointak eta ahozko azalpenak.	
Etxerako bidaltzen zaizkion ataza motak haren irakurketa-idazketaren mailara egokitzea, hau da, irakurriko duen testu mota egokitzea, eta haren gaitasunetara egokitzen ez diren testu oso luzeak baztertzea.	
Landuko dituen idatzizko testuak ongi ulertu dituela egiaztatzea, galderak eginez, eta, hala badagokio, ahozko aparteko azalpenak ematea.	



Idatzitako jarraibideak sinplifikatzea, gako-hitzak letra lodiz edo gorriz adierazita.	
Zereginen zuzentasunari buruz hitz egitea ikasleekin.	
Ortografiaren eskakizun-maila ikaslearen irakurketa- eta idazketa-mailara egokitzea.	
Zereginak material osagarria erabiliz egitea: • Alfabetoa. • Eskemak. • Hiztegia. • Arau ortografikoak. • Kalkulagailua. • Zuzentzaile ortografikoak, etab.	
Jardueren enuntziatua kopiaztara ez behartzea.	
Agendaren kontrola familiarekin koordinatzea.	

Familiak

Haurri ikasteko denbora egituratzen laguntzea, dinamikoa eta motibagarria izan dadin, eta egin beharreko jardueren sekuentzia ongi ikusteko leku batean jartzea. Egokiagoa da zereginen eta ikasketen saioak goizez izatea, eta jarduera dinamikoak eta ludikoenak, hala nola kirola, eskulanak, jolasak, errezetak eta esperimentuak, arratsalde. Errutinak sortzea, ikasketa-saioak hobeki antolatzeke eta ikasleek aurrez jakiteko gero zer landuko duten. Garrantzitsua da ikasteko ordutegia berdina izatea egunero.	
Ikasteko lekuan distrakzioak murriztea: distrakzio-elementuak, leihoak, posterrak edota objektu erakargarriak ekiditea.	
Lanen eta azterketen egutegi bat egitea, eta ikasteko lekuan jartzea, ongi ikusteko leku batean.	
Egunero, ikasketa-saioari hasiera emateko, zer landu behar duten jasotzea eskema edo gidoi baten bidez. • Gidoia ongi ikusteko leku batean jarri behar da, eta garrantzitsua eta motibagarria da egindako jarduerak ezabatuz joatea. • Lan zail edo neketsuagoak eta lan erraz edo atseginagoak tartekatzea, baita atseden hartzeko uneak ere.	
Haurrak jarduera egiteko behar den materiala prest duela egiaztatzea.	
Haurra bultzatzea irakasleari zalantzak pribatuan galdetzeraz.	

4. IRAKASLEEK ETA FAMILIEK KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDI EMOZIONALAK



Ikaskelako aniztasuna egoera normal eta positibo gisa lantzea, eta horri aukera desberdinekin erantzutea, taldeko ikasle guztiei ikasten laguntzeko (egokitzapenen normalizazioa).	
Ikaskuntza-egoerak diseinatzea, autoestimua zaintzeko beren trebetasunak erakusteko eta ikaskideek ikusteko, zailtasunak izan arren, onak direla beste alderdi batzuetan.	
Modu indibidualean indartzea, lorpenengatik eta egindako ahaleginagatik.	
Arrakastarik eza kontrolatzen ahal diren kanpoko ezaugarriei egozte: ikasten emandako denborari, estrategiak hobeki erabiltzeari, laguntza teknikoak hobeki baliatzeari, zalantzak galdetzeari, ikaskideei laguntza eskatzeari...	
Ikaskide guztien aurrean goraipatzea, hainbat arlotako indargune eta trebetasun pertsonalengatik (kirola, artea, enpatia izateko gaitasuna, lankidetzeta-maila handia, adiskidetasuna, sen estetikoa...).	
Beren trebetasunak indartuko dituzten eskolaz kanpoko jarduerak egiteko aukera eskaintzea.	